

**LACANIAR ALORREKO FORMAZIO
KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN**

“JAKINMINA”

2022-2023 IKASTURTEA

2022-2023

Koordinakuntza Batzordea

M.^a Jesús Zabalo, Aitor Guisasola, Arkaitz Irazabal

Antolaketa Batzordea

Aitor Guisasola, Arkaitz Irazabal, Xabier Moñux,
Mikel Plazaola, Teresa Velasco, M.^a Jesús Zabalo, Tereko Zaballa

Informazioa: jakinminaformacionesclinicas@gmail.com

M. ^a Jesús Zabalo	616965044	zabaloiturrioz@gmail.com
Aitor Guisasola	656766324	aitor.guisasola@gmail.com
Arkaitz Irazabal	646062818	arkaparis@gmail.com

JAKINMINA NIF: G 20712378

Eusko Lege Biltzarrak 2007ko ekainaren 12an onartutako 7/2007
legearen baitan AS/G/08720/2000 zenbakiz inskribatutako elkarte

WEB: www.foropsicoanaliticopaisvasco.org/jakinmina

“JAKINMINA”

LACANIAR ALORREKO FORMAZIO KLINIKOAK EUSKAL HERRIAN (FCCL)

Ikastaro honetan, jarduerak modu hibridoan mantenduko ditugu, bertaratu ezin duenak Zoom bidez egin ahal izan dezan.

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikoeak (FCCL) askotariko espazioak eraten dituzte, eskaeretara egokitu daitezkeenak. Hau da, gure iritzi, ardatz nagusia: “jakin nahi” batean daudenei zuzenduta daudela.

FCCL beraz, psikoanalisian interesaturik dagoen edonorentzako irakaskuntza esparru ireki bat da.

Bere baitan egiten diren jarduerak psikoanalisian, gure esparruan, Freud eta Lacan hain zuzen ere, urtez urte prestakuntza sendo eta jarrai bat egitea gautzen du.

Honez gain, Donostiako San Juan de Dios Ospitale Psikiatrikoarekin duen hitzarmenaren bitartez, klinikarako hain oinarritzkoa den Erien Aurkezpena ahalbidetzen du, non analistek, kontsulta pribatuetara hain maiz gerturutzen ez diren patologia sakonak aurrez-aurre ikus ditzaketen.

Egiten diren kasu kliniko azalpenek eta erien aurkezpenek abiapuntu kliniko batetik gure egungo ondoezen eta sintomen ulermen zehatzera gerturutzen gaituzte. Psikoanalitik galdekatuko ditugu, interpretatuko duen psikoanalista bat dagoen tokian pazienteari entzutea eskatzen duen bere etikara iristeko.

2022-2023 ikasturteko aktibitateak, psikoanalisiak gure gizarte eta garaiaren ondoezei ematen dien erantzunetan interesaturik dagoen edonori zuzenduak daude, psikoanalista, psikologo, psikiatra, osasun mentalean diharduten langileei, mediku, filosofo, irakasle, ikasle, eta orokorki, edozein jakintza arlotik, gaur egungo gizartearen adierazgarri diren aurrerakuntza zientifikoek, subjektuarengan duten eraginaren aurrean, psikoanalisiaren eskaintzan interesaturik dagoen edonorentzako.

Ez da beste jarduerarik, subjektua, bere eskaria adierazterakoan egi sintomatikoa adierazten duena bezala harturik, beregan hunkitzen duen inkontzientearen zergatira zuzenduko duenik.

Lacaniar Alorreko Formazio Klinikokoak Euskal Herrian, 1998an hasi zenetik, jarraian, hogeit eta laugarren kurtsoari ekingo dio 2022-2023 ikasturtean, bertan bost modulu proposatzen direlarik.

MINTEGI TEORIKOA ETA KASU KLINIKOEN AZALPENA

Jacques Lacan

14. MINTEGIA (1966-1967)

FANTASMAREN LOGIKA (2. zatia. XIII-XXIV)

Luzaroan, sendabide analitikoaren praktika eta teorian, fantasma, oinarritzko fantasma, analisi baten erreferentzia izan da: hasiera, ibilbidea, gora-beherak, eta bukaera arte. Sintomatik abiatuta, Fantasmaren eraikuntza bezala formulatua, bukaeran bere trabeskatzera iritsi arte. *Fantasmaren logikak* ibilbide hau eusten duten oinarriak biltzen ditu.

Lacanengan ohikoa denez, izenburua, edukia eta praktikarekin artikulazioa, sarritan ez datoz bat. Baina, ohikoa denez ere, ibilbide teorikoaren amaieran azaltzen da nola jariatzen joan den ezaguera eta klinika oinarritzen duten kontzeptu nagusiak.

Mintegiaren hasieran Lacanek berak dio bere irakaspenaren ibilbidearen logikarekin artikulazio bat bilatzen ahaleginduko dela. Ibilbide honetan itzulera bat impositzen da, errepikapen bat den itzulera. Baina edozein errepikapen gisan, ez da berbera aurkitzen. Bilatzera zerk bultzatzen duen, eta nahiz berbera aurkitu ez, bilaketa berriro hastera zerk daraman, artikulatzea da asmoa.

Beraz, logika abiapuntu harturik, honako hau ulertzen ahalegintzea da: zerk bultzatzen duen bilaketa, bilatzen dena zer den, eta bilatzen zena ez izanik, zer den aurkitzen dena, eta berriro bilaketan abian jarriz, errepikapen batekin topo egina eta zein eragin duen klinika eta subjektuaren eraketan.

Bultzatzen duenagatik zatitutako subjektu baten abordaia da. Finean ez den objektu baten bilaketa da, bere unibertsoa osatzen duen objektuaren batena, baina unitate ilusio ematen diona. Beraz, subjektua, bere zatitzea, Bestearikiko harremana, objektuarekikoa eta honen funtzioarekikoa, objektu horren ontika, e.a. lantzen da.

Lacanen arabera, bere irakaskuntzaren ibilbidean jada landutako kontzeptuetara itzulera da, baina gaiari modu berri batez heltzen dio.

Ibilbide hau jorratzen lagunduko duten puntuak proposatzen ditu: fantasmaren logika, fantasmaren eta signifikantearen arteko egituren harremana, diskurtsoaren unibertsoa, idazketa eta azkenik pentsamendua, lengoia eta inkontzientearen arteko freudiar harremana.

Begirada berria logikaz baliatzen da, logika matematikoaz. Beraz, hasieran beharrezkoak egiten dira hainbat inguratze: Fregeren aritmetika, multzoen teoria eta bere legeak, Russel eta bere paradoxak, Booleren logika eta bere analisi matematikoa eta pentsamenduaren legeen ikerketa.

Logika matematikoa, filosofiak izateari buruz duen ideiarekin uztartzen du, bereziki Descartesen izana eta ez izana, Espinozari ere aipamenak eginaz.

Ez dira falta klinikara erreferentziak, non eraikuntza teorikoa, egitura kliniko klasikoekin egiaztatzen ahalegintzen den.

Bai mintegi teorikoa irakasteko, bai Euskal Herriko kideek aurkeztutako kasu klinikoak lantzeko Bartzelonako, Pariseko, Madrilgo, Tarragonako, Asturiaseko, eta Pabeko psikoanalisten partaidetza dugu. Psikoanalisiaren irakaskuntzan eta bere transmisioan adituak diren psikoanalistak.

Egutegia

2022ko urriak 08

Bernard Nomine. Psikoanalista Paben.
Sarrera eta XIII. kapitulua
Kasu aurkezlea: Tania Navarro
Koordinatzailea: M^a Jesús Zabalo

2022ko azaroak 12

Montserrat Palleja. Psikoanalista Tarragonan
XIV. kapitulua
Kasu aurkezlea: Arkaitz Irazabal
Koordinatzailea: Aitor Guisasola

2022ko abenduak 10

Ana Alonso. Psikoanalista Madrilen
XV. eta XVI. kapituluak
Kasu aurkezlea: Karmen Clemente
Koordinatzailea: Tereko Zaballa

2023ko urtarrilak 14

Trinidad Sanchez-Biezma de Lander. Psikoanalista Madrilén.
XVII. eta XVIII. kapituluak
Kasu aurkezlea: Garazi Muguruza
Koordinatzailea: Teresa Velasco

2023ko otsailak 18

Ritheé Cevasco. Psikoanalista Bartzelonan eta Parisen.
XIX. eta XX. kapituluak
Kasu aurkezlea: Eli Irureta
Koordinatzailea: Josefina García de Eulate

2023ko martxoak 11

Josep Monseny. Psikoanalista Bartzelonan.
XXI. eta XXII. kapituluak
Kasu aurkezlea: Juan del Pozo
Koordinatzailea: Xabier Moñux

2023ko apirilak 22

Marta Casero. Psikoanalista Asturiasen
XXIII. kapitulua
Kasu aurkezlea: Rosa Belzunegi
Koordinatzailea: M^a Jesús Diaz

2023ko maiatzak 20

Luis Izcovich. Psikoanalista Parisen.
XXIV. kapitulua eta itxiera.
Kasu aurkezlea: Mirta Eiroa
Koordinatzailea: Mikel Plazaola

Non

San Sebastian Hotela. Eguzki aretoa + Zoom
Zumalakarregi ibilbidea 20 Donostia

Ordutegia

10:00etatik 14:00etara.

2. modulua

IRAKURKETA MAHAIA

14. Mintegiko saioen aurreko irakurketa egingo da.
2. zatia (XIII-XXIV kapituluak)

(Lacan, J. (1966). 14. liburua. Fantasmaren logika. El seminario de Jacques Lacan. *Barneko dokumentua Jakinminak argitaratuta*).

Egutegia

2022ko urriak 4	2022ko abenduak 13	2023ko otsailak 21
2022ko urriak 25	2023ko urtarrilak 10	2023ko martxoak 7
2022ko azaroak 15	2023ko urtarrilak 24	2023ko apirilak 18
2022ko azaroak 29	2023ko otsailak 7	20223ko maiatzak 16

Non

Okendo Kalea 5, 2. C.
Donostia
Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren Egoitzan + Zoom

Noiz

Asteartetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Mikel Plazaola,
M^a Jesús Zabalo eta
Teresa Velasco

3. modulua

ERIEN AURKEZPENA

Jarduera hau ospital batean burutzen denez, ezin dugu zihurtatu egin ahal izatea, ospitaleetan arau eta murrizketak oraindik oso zorrotzak direlako. Saioren bat egitea posible izanez gero matrikulatuei abisua pasako diegu.

Non

Donostiako
San Juan de Dios
Ospitalean

Noiz

Ostiraletan
18:00etatik 20:00etara

Koordinatzailea

Tereko Zaballa

KLINIKA PSIKOANALITIKORAKO SARRERA-IKASTAROA

Ikastaro honetan fantasma kontzeptua jorratzen jarraituko dugu. Iaz Freuden eta Lacanen fantasma kontzeptura gerturatzeko ahaleginak ginen, baina funtsezko fantasma, fantasmaren trabeskatzeaz ari garenean galdera asko irekiak gelditu dira. Klinikarekin eta analisi baten esperientziarekin zein zerikusi du? Zein ondorio du subjektu batentzat fantasmaren eraikuntza eta bere trabeskatzeak?

Analisten esperientziaren eta analisiaren amaieraren lekukotzan oinarrituta egingo dugu lan, non analisi baten ondorioen mehatzeta egin ahal izango dugun. Testu horietan fantasmari buruzko erreferentziak aurkituko ditugu, baina baita funtsezko kontzeptu psikoanalitikoekin duen lotura ere, horiek gabe ezin baita ulertu zer den ibilbide analitiko bat eta zer ondorio subjektibo eta kliniko dituen. Kurtsoan zehar teoria eta klinika uztartzeko asmoz, lekukotza hauetan azaltzen diren kontzeptuak xehatuko ditugu. Bestalde, saioaren bat egingo dugu analista horietako baten presentziarekin, saioetan zehar sortu zaizkigun gaiak planteatu ahal izateko.

Egutegia

2022ko urriak 19	2023ko urtarrilak 18	2023ko apirilak 26
2022ko azaroak 16	2023ko otsailak 15	2023ko maiatzak 24
2022ko abenduak 14	2023ko martxoak 15	

Non

Okendo Kalea 5, 2. C.
Donostia
Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren Egoitzan + Zoom

Noiz

Asteazkenetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

M^a Jesús Zabalo
Arkaitz Irazabal eta
Aitor Guisasola

Modernitatearen subjektua.

Aurtengo kurtsoan subjektibitate modernoa jorratzen jarraituko dugu, Fichte, Hölderlin eta Hegelen eskutik. Hegelen "Logikaren zientzia" eta "Espirituaren Fenomenologia" bereziki jarritz arreta.

R. Barthesek bere autobiografian eta "Sade, Fourier, Loyolan" deskribapenean bezala, subjektua auzitan jartzen bukatuko dugu.

"Dialektika bihurri batengatik Textoa, subjektu ororen suntsizaile dena, izan behar badu maitatzea merezi duen subjektu bat, subjektu hau sakabanatua egongo da, hil ondoren haizera botatzen diren errautsak bezala" (R. Barthes "Sade, Fourier, Loyola")

Bibliografia:

Alexandre Kojève: "Introducción a la lectura de Hegel"

Hegel: "Ciencia de la lógica" y "Fenomenología del espíritu"

Roland Barthes: "Roland Barthes por Roland Barthes" y "Sade, Fourier, Loyola"

Slavoj Žižek: "El espinoso sujeto"

Felipe Martínez: "De Kant a Holderlin"

Egutegia

2022ko urriak 18	2023ko urtarrilak 17	2023ko apirilak 25
2022ko azaroak 08	2023ko otsailak 14	2023ko maiatzak 23
2022ko abenduak 20	2023ko martxoak 14	

Non

Okendo Kalea 5, 2. C.
Donostia
Euskal Herriko Foro
Psikoanalitikoaren Egoitza + Zoom

Noiz

Asteartetan
20:00etatik 21:30etara

Koordinatzaileak

Angel Murias eta
Xabier Oñativia

Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoen Jardunaldi bateratua

XXII. Jardunaldi bateratua Tarragonan burutuko dira, 2023ko maiatzaren 27an. Bertan, ondorengo Kolegio Klinikoeek hartuko dute parte: ACCEP Associació Catalana per a la Clínica i l'Ensenyament de la Psicoanàlisi, Galiziako Elkarte Psikoanalitikoa Santiago/Vigo Foroa, Associació de Clínica Psicoanalítica de Tarragona (ACPT), Madrilgo Kolegio Psikoanalitikoa, Col-legi de Clínica Psicoanalítica de Valencia, Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoa/Asturiasko Foro Psikoanalitikoa, Jakin-mina Lakaniar Alorreko Formazio Klinikoa Euskal Herrian, Seminari de Psicoanàlisi de Tarragona.

Jardunaldirako inskribapenak salneurri murrizketa izango du Formazio Klinikoko ikasle eta irakasleentzat.